

Kontseilari jauna,

Zurekin lehenbailehen elkartu nahiko genuke; izan ere, bada urtebete lehenengo aldiz elkartu nahi hori azaldu genizunetik, helduen euskalduntze alfabetatzeaz aritzeko, eta batez ere, Gobernuaren diru laguntzaz. Baina oraindik ez dugu erdietsi asmo hori.

Dena den, hizkuntza politikaz eta politika horrek Gobernuaren aurrekontuetan duen eraginaz kezkatutik, gutun hau helarazten dizugu zurekin egoten garenean gai hauetaz luze hitz egiteko aukera izanen dugulakoan.

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika ez da batere eredugarria, politika horren helburua euskara indartzea eta hedatzea bada, behintzat. Bai diskurtsoetan, bai ekintzetan, euskara desprestigiatzeko ahaleginak etengabeak izan dira. Bertakoak ez diren hizkuntzak euskararen gainetik jartzen dituzue. Gobernuak, Nafarroakoa izan beharrean, beste nonbaitekoa dela ematen du. Gehiago promozionatzen da beste hizkuntza bat jakitea euskaraz jakitea baino. Administrazioan balio handiagoa dute beste hizkuntza batzuek euskarak baino. Eta hezkuntzan ere, euskara ez den bestea da nahitaezkoa.

Nafarroako Gobernuak ez al luke Nafarroakoa den hizkuntza bultzatu eta erabili beharko? Nork egingen du gure hizkuntzaren alde? Kanpoko Gobernuren batek? Hemengo Gobernuak ez al dago Nafarroako kultura, hizkuntzak eta jakintza zabaltzeko eta nafarron arteko elkarbizitza hobetzeko?

Aipatu dugun euskararen baztertze eta desprestigiatze politika honen barnean ikusten dugu helduen euskalduntze eta alfabetatzeko taldeei ematen diguten laguntza irrigarria. Euskara ikasi nahi duten heldu guzietan ikasteko duten eskubidea garantizatu beharrean, lan honetan aspaldiko urteetan ari diren euskaltegiak ito nahian dabil Gobernuak.

2004an, AEK, IKA eta beste euskaltegi txiki batzuentzako laguntza 529.000 eurokoa izan zen. Aurten, 180.000 eurokoa da. Eta UPNk eta CDNk 2006rako adostu dutena 230.000 eurokoa. Beraz, aipatutako alderdi politikoren batek jarrera aldatzen ez badu, 2006an 2004koaren erdia baino diru gutxiago izanen dugu. 2004an, ikasle eta eskola orduko 0,95 euro jasotzen genuen, eta oso gutxi zen behar bezala jardun ahal izateko. Aurten, 0,30 euro ari gara jasotzen, eta datorren urtean antzera ibiliko gara. Gure ustez, hau laguntzea baino burla egitea izan daiteke. Hau horrela izanik, ahaleginak egiten ari gara 2006rako diru kopurua aldatzeko.

Azkenik, gure eskakizunak zein diren azaldu nahi dizugu:

1. Euskaltegi eta gaueskolen lana aintzat hartzea.
2. Euskaltegien eta jarduera bera garatzen duten beste ikastetxeen finantziario eredu orekatua lantzeko bidea eta dirua jartzea.

3. Euskara ikasi nahi duen herritarrak dirutan egiten duen adinako ahalegina egin beharko luke Gobernuak. Horretarako, datorren urteko aurrekontuetan **888.648** euro jarri beharko lituzke, jakinik herritarrak **1,60** euro inguru ordaintzen duela eskola orduko herri ekimeneko euskaltegietan.

Besterik gabe, agur.

Iruñean, 2005eko azaroaren 15ean

Sr. Consejero:

Quisiéramos mantener una reunión con usted, pues hace ya más de un año desde que le solicitamos una reunión para hablar sobre la alfabetización y enseñanza de euskera a adultos y, especialmente, para abordar el tema de las subvenciones. Aún no la hemos conseguido.

En cualquier caso, le hacemos llegar esta misiva motivados por nuestra preocupación por la política lingüística y su reflejo en los presupuestos del Gobierno y pensando que en un próximo encuentro tendremos la posibilidad de hablar en profundidad sobre el tema.

La política lingüística del Gobierno de Navarra no es nada ejemplar, al menos si el objetivo de esa política es fortalecer y recuperar el euskera. Tanto en los discursos como en las actuaciones han sido constantes los intentos de desprestigiar el euskera. Ponen lenguas foráneas por encima del euskera. Parece que el Gobierno, en vez de ser de Navarra, es de otro lugar. Otras lenguas son más valoradas en la Administración y, en el sistema educativo, las obligatorias son otras lenguas, no el euskera.

¿No debería el Gobierno de Navarra utilizar y promocionar la lengua propia de Navarra? ¿Quién promocionará nuestra lengua, un gobierno foráneo? ¿No son acaso quehaceres del Gobierno divulgar la lengua y el conocimiento y mejorar la convivencia?

Creemos que la ridícula subvención que recibimos los organismos dedicados a la alfabetización y enseñanza de euskera a adultos responde a esta política de desprestigio y discriminación del euskera. En vez de garantizar el derecho de todos los adultos a aprender euskera, el Gobierno pretende asfixiar a los euskaltegis que durante años han venido realizando ese trabajo.

Durante el año 2004, AEK, IKA y otros pequeños euskaltegis recibieron una subvención de 529.000 euros. Este año será de 180.000 euros. UPN y CDN han acordado para el 2006 230.000 €. Así pues, si ninguno de esos partidos cambia de opinión, tendremos menos de la mitad que en 2004. En dicho año recibimos una

subvención de 0,95 euros por alumno y hora lectiva, cantidad insuficiente para desarrollar nuestro trabajo en condiciones mínimas. Este año estamos recibiendo 0,30 € y parece ser que el próximo año no cambiará significativamente. A nuestro juicio, esto más que una ayuda es una burla.

Por último, le queremos recordar una vez más cuáles son nuestras peticiones:

1. Reconocimiento oficial del trabajo que desarrollan los euskaltegis.
2. Disponer los medios institucionales y económicos necesarios para consensuar un modelo de financiación equilibrado de los euskaltegis en relación a otros centros de la Administración que realizan similar actividad.
3. El Gobierno debería, al menos, hacer el mismo esfuerzo económico que realizan los ciudadanos que desean aprender euskera. Debería preverse por tanto una partida de 888.648 €, ya que los alumnos pagan una matrícula de 1,60 € por hora lectiva en los euskaltegis de iniciativa popular.

Reciba un cordial saludo.

Pamplona, 15 de noviembre de 2005

Kontseilari jaunari helarazi diogun gutunean diogun bezala, ahaleginak egiten ari gara 2006rako aurrekontuetan UPNk eta CDNk Nafarroako euskaltegiendako adostu duten diru laguntza handitu dezaten. Horretarako, Parlamentuko alderdi politiko guziekin mintzatu gara, UPNrekin izan ezik. UPNkoek deituko digutela esan digute; baina, oraingoz, ez gara elkartu alderdi horren ordezkariekin. CDNk izan ezik, gainerako guziek esan digute emendakina sartuko dutela bidegabekeria hau zuzentzeko. CDNk, berriz, ez digu aurreratu zer eginen duen. Alderdi guziei egin diegun eskaera, eta UPNri eginen dioguna, Kontseilariari helarazi diogun gutunean duzuen da.

Parlamentuan gai honen inguruko eztabaida egin aurretik, eta eztabaida bitartean, mobilizazioak eginen ditugu, zuzena den gure eskaera erdiesteko asmotan. Bai AEKko euskaltegiek, bai IKAKoek, bakoitzak bere aldetik eta tokian tokiko ekintzez gain, honako hauek egin eta eginen ditugu elkarrekin:

1. Gaur, hilak 16, egin dugu giza katea Hezkuntza Departamentutik Nafarroako Gobernura. Honekin batera, Luis Campoy kontseilari jaunari helarazi diogun gutuna.
2. Abenduaren 17an, larunbatarekin, arratsaldeko 5.30etan abiatu, eginen dugun manifestazioa. Herritar guziak manifestazioan parte hartzera deitzen ditugu.

Nafarroako AEK eta IKA

Iruñean, 2005eko azaroaren 15ean

Tal y como lo señalamos en la carta enviada al Consejero de Educación, estamos haciendo todo lo que podemos para que UPN y CDN amplíen la partida presupuestaria que han acordado destinar a las subvenciones de los euskaltegis. Hemos realizado una ronda de reuniones con todos los grupos parlamentarios salvo UPN. UPN comentó que nos llamaría y estamos a la espera. Salvo CDN, el resto de grupos nos ha confirmado que presentarán enmiendas para intentar solucionar esta situación. CDN, por su parte, no ha adquirido ningún compromiso. La propuesta que hemos puesto sobre la mesa a los partidos es la misma que hemos remitido al Consejero.

Durante las siguientes semanas, llevaremos a cabo varias movilizaciones. Además de los actos que convocarán los euskaltegis de AEK e IKA, se realizarán las siguientes movilizaciones conjuntas:

1. La encartelada de hoy y el registro de la misiva dirigida al Sr. Luis Campoy, Consejero de Educación.
2. Una manifestación el día 17 de diciembre, sábado, que partirá a las 5.30 de la plaza del Ayuntamiento de Iruñea.

Nafarroako AEK eta IKA.

Pamplona, 15 de noviembre de 2005